

BERGARAKO GIZON ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

2018-2021

V. ZIRRIBORROA

2018ko APIRILA



AURKIBIDEA

1.	Sarrera	2
2.	Lege oinarriak	3
3.	Lan prozedura	7
4.	Bergarako II. Berdintasun Planaren egitura	11
5.	Bergarako II. Berdintasun Plana Kudeatzeko egiturak	30

1- SARRERA

Azken urteotan, hainbat aurrera-pausu eman dira lege-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Nazioarte edo estatu mailan ez ezik, foru erkidego ezberdinetan eta udal mailan ere aurrera-pausu handiak ematen ari dira maila legalean. Zentzu horretan, legeek aitortutako berdintasun adierazpen formaletatik at, benetako berdintasuna lortzea da egungo berdintasun politiken erronka nagusia. Berdintasun erreal horretara urratsak ematea da hain zuzen, dokumentu honetan aurkezten den bergarako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planaren helburua.

Bergarako I. berdintasun planaren indarraldia agortuta, 2013. Urtean egitasmo hark emandakoak ebaluatu ziren. Ebaluazio txosten horretan oinarriturik, eta udaleko arlo ezberdinen kolaborazioari esker sortu da II. Berdintasun Plan hau, Bergarako udalean bertan, eta udaletik herrira burutzen diren ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzeko asmoz. Tresna honen erabilera ziurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartu dira, helburu eta helmuga errealak markatu dira, eta aldi berean neurgarriak eta testuinguruari egokituak diren adierazleak ezarri dira.

Plan hau udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabiltzeko tresna bat izan behar du; maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin da.

Era berean, herriko eragile ezberdinen inplikazioa ere ezinbestekoa izan da plan honen elaborazio prozesuan, eta exekuzioan ere bereziki garrantzitsua izango da herriko elkarte, eragile eta norbanako guztien parte hartzea.

1- LEGE-OINARRIAK

Aurrean esan bezala, Bergarako II berdintasun planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako testu legalak.

Honakoak lirateke horietan garrantzitsuenak kontsideratu direnak:

- ⇒ Apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Tokiko erregimenaren oinarria arautzen duena. 2003-12-21 ean eguneratua.
- ⇒ Otsailaren 18ko 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea. (EAE)
- ⇒ Martxoaren 22ko 4/2007 Lege Organikoa, Emakume eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako Legea. (Espainiar estatua)
- ⇒ Tokiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Europako Eskutitza.
- ⇒ 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. (Gipuzkoako foru aldundia)
- ⇒ EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako VI. Plana.

Azpimarratu beharrekoak dira, Bergarako II. Plana egiterakoan oinarri izandako bi erreferentzia aipagarrienak: EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.

✓ **EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea**

EAEko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Autonomi Erkidego mailan berdintasun politikak garatzerako orduan kontuan izan beharreko zenbait irizpide ezartzen ditu. Horretarako, berdintasun politikan oinarritzko diren zenbait kontzeptu definitzeaz gain, legearen **7. artikuluan**, tokiko **administrazioen funtzioak** zehazten ditu:

- a) *Genero ikuspuntua integratzeko, prozesu, programa eta esturturen egokitzapena eta eginkizuna du.*
- b) *Ekintza positiboen aktuzio neurriak.*
- c) *Foru Aldundiei dagokien programazioa eta Gobernuaren planifikazio orokorraren testuinguruko planifikazioa.*
- d) *Emakume eta gizonen ezberdintasunen gaineko ezagutza erreal bat izateko, beharrezko diren estatistika eguneratuen egokitze eta mantentzeak burutzea. Eta berdintasuna bultzatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.*
- e) *Udal herri mailan emakume eta gizonen egoerari buruzko ikerketa eta azterketak garatzea.*

f) Emakume eta gizonen egoera ezberdinari buruzko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. Eta berdintasuna lortzeko martxan jarri beharreko neurriei buruzko sentsibilizazio kanpainak garatzea.

g) Herriko araudiari jarraipena egin eta emakume eta gizonen berdintasun printzipioa aplikatzeko adostasuna aurrera eramatea.

h) Herriarentzako informazio eta orientazioa ematea, bereziki emakumeei, berdintasunen inguruko errekurtso eta programei buruz. Eta bazterketa anitza pairatzen duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programei buruzko informazioa zabaltzea.

i) Emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programen aurkezpenak egin eta berauek aurrera eramatea.

j) Bizi pertsonala, laborala eta familiarra bateragarriak izateko behar diren establezimendu, errekurtso eta zerbitzu soziokomunitarioak martxan jartzea. (udal mailako izaera du).

k) Entitate publiko nahiz pribatuak, parte hartze bideak, erlazioen ezarpena, bakoitzaren funtzio eta helburuen arabera elkar lana egitea, Udal Herri mailan, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko.

l) Sexu arrazoiengatik ematen diren diskriminazio eta bazterketa guztiak atzematea eta berauek deusezteko neurriak jartzea.

m) Beste edozein funtzio, beti ere udalaren kompetentzien barruan sartzen bada.

Horrez gain, lege beraren **10. Artikuluak** tokiko administrazioek berdintasun arloan dituzten **eginkizunak** zehazten dira:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioako sailei eta beren mendeandakuden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.

f) *Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitze eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.*

g) *Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.*

h) *Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria- egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.*

i) *Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.*

j) *Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea*

k) *Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.*

l) *Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.*

✓ **EAEko gizon eta emakumeen VI. Berdintasun Plana**

Gaur egun Berdintasun Plan bat egiteko kontuan izan beharreko beste erreferentzia nagusia EAEko emakume eta gizonen VI. Berdintasun Plana da.

Plan hau, 3 ardatzen inguruan egituratzen da. Ardatz hauek, berdintasun politikak lantzeko lehentasunak ezartzen dituzte: Ahalduntzea eta emakumeen parte hartze soziopolitikoak, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria. VI. Plan honetan, mainstreaming-a ardatz bezala kontsideratuzetik estrategia gisa ulertzera pasatzen da. Aldaketa nabarmen honek, berdintasun politiken norabidean ikuspegi aldaketa bat erakusten digu, non zehar-lerrokotasunak zentraltasuna irabazten duen, eta ezinbesteko kontzeptutzat jotzen den berdintasun politikak garatzerako orduan. Ikuspuntu hori da hain zuzen Bergarako II. Plan honen oinarri nagusia.

ZER DA ZER?

Mainstreaming-a: Genero ikuspegia departamendu eta ekintza guztietan zeharkakoa izatean datza. Departamendu guztiek berdintasuna beraien helburuetako bat bezala onartu eta hartu behar dute, eta haien eguneroko jardunean zehar-lerroko eta ezinbesteko gai gisa kokatu.

Era berean, genero ikuspegia, herriko eremu eraginkorretan ezartzean datza; eremu sozial, eremu kultural, eremu ekonomiko...

Ahalduntzea: Gizartearen eraketa patriarkalak ezarritako posizioaren kontzientziatik, emakumeek haien egoera hobetzeko urratsak ematen dituzte, eremu pertsonal, kolektibo eta soziopolitikoan. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planak horrela azaltzen du Emakumeen ahalduntze eta balio aldatze ardatza: Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzeari deritzogu ahalduntzea. Beraz, emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egiterekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.

Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna: Bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala bateratzeko neurri multzoa. Norbanakoon denbora hiru eremuok asetzea ahalbidetzea, eta era berean emakume eta gizonen denboren erabilera parekatzeko neurriak ezartzean datza. Hala, espazio publiko eta pribatuaren arteko oreka bilatzen da emakume zein gizonentzat.

Emakumeen aurkako indarkeria: Sexu arrazoiengatik, emakumeen aurka ematen den edozein motatako indarkeria. 4/2005 Legeari jarraiki, emakumeen aurkako indarkeria honela definitzen da: "sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan".

2- LAN PROZEDURA

Aipatutako helburuak lortzeko, hainbat fasetan egituratutako lan prozedura jarraitu da 6 hilabeteko epean, aurrean aipatutako lege oinarriak kontuan hartuta, eta Emakunderen VI. Berdintasun plana ardatz harturik.

- 1. fasea:** Talde sustatzailea osatu, lan tresnen diseinua eta planaren egitura zehaztu
- 2. fasea:** I. Planaren ebaluazioan jasotako informazioaren azterketa, kontrastea (talde eragile, teknikari eta herritarrekin) eta interpretazioa
- 3. fasea:** Berdintasun planaren I. zirriborroa egitea eta kontrastea (talde sustatzaile + herritar + teknikariek)
- 4. fasea:** II. Zirriborroa egitea eta kontrastatzea (talde sustatzailea+ teknikari+ politikariek)
- 5. fasea:** II. Zirriborroa Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu. Audentzi publikoa
- 6. fasea:** Bergarako II. Berdintasun Planaren onarpena

1. Fasea: Talde sustatzailea osatu, lan tresnen diseinua eta planaren egitura zehaztu

■ *Talde sustatzailea* udaleko berdintasun teknikariak, arloko zinegotziak eta Daitekeko ordezkariak osatu dute. Funtzioak:

- Berdintasun plana egiteko ekintza guztien koordinazioa.
- Arlo ezberdinen parte hartzea finkatzea
- Herriko emakumeen parte hartzea bermatzeko neurriak ezartzea.
- Lehentasunak finkatzea
- Planean finkatutako ekintza eta helburu zehatz guztien garapena.
- Emaitzak gizartera hedatzea.

■ *Elkarte-mugimenduaren eta emakumeen parte-hartzea prozesu osoan zehar sustatzea.*

Plana diseinatzeko-prozesuan, udaleko berdintasun-politiken diseinu eta proposamenetan, eta jarraipen eta balioespen orokorrean egon den bigarren egitura da. Informazioaren eta ekintzen kontrasterako egitura garrantzitsua izan da. Herriko elkarte feministako kideek eta herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak parte hartu dute prozesu honetan. Parte-hartzearekin, emakumeentzat, emakumeekin kontatu gabe gauzak antolatzea ekidin nahi da.

2. Fasea: I. Planaren ebaluazioan jasotako informazioaren azteketa, kontrastea (talde eragile, teknikari eta herritarrekin) eta interpretazioa.

2013 urtean burutu zen I. planaren ebaluazioa, eta hiru urteotan Bergarako errealtatean aldaketak egon dira. Hala, herritarrekin eta teknikariek ebaluazio bilerak burutu dira, bilera horietan jasotako informazioa kontrastatu, eta lehentasunak finkatu dira fase honetan. Horretarako, arlo bakoitzeko arduradun den teknikariarekin bilerak burutu dira

3. Fasea Berdintasun planaren I. zirriborroa egitea eta kontrastea (talde sustatzaile+ herritar + teknikariek)

Aurreko bileretan jasotako informazioa eta ebaluazioa jasotzen duen dokumentua kontuan harturik, Berdintasun Planaren I. zirriborroa egin da. Lehenengo zirriborro hori talde sustatzailearekin kontrastatu da, ondoren teknikari, gizarte eragile eta herritarrekin batera kontrastatu ahal izateko.

Ekintza bakoitzaren arduradun eta aurrekontua zehaztu da bilera hauetan. Helburu eta ekintza bakoitza ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak ere kontrastatu dira une honetan.

4. Fasea: II. Zirriborroa egitea eta kontrastatzea (talde sustatzaile+ teknikari+ politikariek)

Jasotako proposamenekin eta ezarritako lehentasunekin II. Zirriborroa eratu da. Talde eragilearekin bilera bat burutu da kontrasterako, eta teknikari eta politikariei helbide elektroniko bidez helarazi zaie dokumentua, azken zuzenketak proposatzeko aukera emanez.

5. Fasea: III. Zirriborroa egitea. Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu. Audientzi publikoa.

III. zirriborroarekin batera arlo bakoitzaren urterako programazioa ere egin da. III. zirriborroa Talde eragilearekin kontrastatu ondoren, Emakundera bidali da hauen onespena eta iradokizunak jaso ahal izateko. Denbora tarte horretan Berdintasun Plana herritarren eskura egon da edozein ekarpen jaso ahal izateko.

6. Fasea: Bergarako II. Berdintasun Planaren onarpena.

Udal plenoan Bergarako Emakume eta gizonen arteko II. berdintasun plana onartu beharko da.

Emakundeko iradokizunak kontutan hartu ondoren eta egondako ekarpenak jaso ondoren, behin betiko Planaren aurkezpena egingo da udal sindikatu eta politikariekin eta beste aurkezpen bat udal teknikari eta administrariekin. Ondoren udal plenoan onartu beharko da.

Parte hartzea

Planaren eraketa prozesuan, aurrean azaldu bezala, ezinbestekoa izan da udal teknikarien eta herritarren parte hartzea. Guztira 31 pertsonak parte hartu dute, 14 udaleko arlo ezberdinetako ordezkari gisa, eta 17 gizarte eragile gisa.

TALDEA	AZPI-TALDEA	Hasierako bilera		Kontraste bilerak	
		Emakume	gizon	Emakume	Gizon
UDALEKO ORDEZKARIAK	Zerbitzu orokorrak	2		2	
	Kultura, museoa eta ingurumena	2		2	
	Kirola		1	1	2
	Euskara	3	1	3	1
	Hezkuntza, gazteria eta parte hartzea	1		1	
	Hirigintza	1	1	1	1
	Berdintasuna	1		1	
	Gizarte zerbitzuak	2	1	2	1
	Enplegua	2		2	
	GIZARTE ERAGILEAK	Elkarte feminista	5		
Elkarte kultural eta kirol elkarteak		5	3	0	0
Ikastetxeak		4		0	0
Parte hartzaileak guztira		24	7	13	5

Gizarte eragileekin teknika ezberdinak erabili dira beraien parte-hartzea sustatze aldera:

- ⇒ Tailer bat talde feministarekin
- ⇒ Herriko elkarteekin geratzeko zailtasunak zeudenez, galdetegi online bat pasatu zaie udal elkarte guztiei.
- ⇒ Ikastetxeen ordezkariekin lan saio bat egin zen

BERGARAKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN KONTRASTEAK

Aurrerago aipatu den bezala, 2013 urtean amaitu zen I. planaren ebaluazio prozesua, eta ordutik, Bergarako errealitatean aldaketak egon direla mahai-gaineratu da II. plan honen elaborazio prozesuaren hastapenean. Hala, herritarrekin eta teknikariek ebaluazio bilerak burutu dira, bilera horietan jasotako informazioa kontrastatu, eta II. berdintasun planaren oinarriak izango direnak finkatu dira fase honetan. Horretarako, arlo bakoitzeko arduradun den teknikariarekin bilerak burutu dira. Bilera horietan jasotako informazioarekin eta informazioa kontrastatzeko kontsultatu diren dokumentuetatik, honako ondorioak atera dira:

PLANAREN ERROTZE eta GARAPEN MAILA

Udaleko arlo ezberdinetako ordezkari gehienek parte hartu zuten Bergarako I. berdintasun planaren elaborazio prozesuan. Ordutik, sentsibilizazio maila handitzen joan dela aitortzen da, orokorrean, prozesu horretan zehar emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia mahai gainean jarri izanagatik. Hala ere, sentsibilizazio eta formazioan sakondu beharra aipatzen da.

Urteotan berdintasun plana lanerako baliabide bezala erabili izana arlo bakarrak aitortu du; gainerakoek ez dute berdintasun neurrien aplikaziorako tresna baliagarri gisa identifikatu.

Orokorrean uste da II. berdintasun plana dokumentu erabilgarri bat izan beharko litzatekeela, zeinetan arlo bakoitzaren errealitatera egokitutako helburuak finkatuko diren. **Helburu hauek errealistak eta neurgarriak izatearen garrantzia azpimarratu da**, izan ere, aurreko planak jasotzen zituen neurriak gehiegizkoak izan zirela uste da, udalaren baliabideak kontuan hartuta.

Berdintasun politikak herrian izandako inpaktua: Berdintasun politikak martxan jarri direnetik bergarako udalean, herrira begira zenbait ekintza egin izan dira. Hala, herritarren artean sentsibilizazioa gero eta handiagoa da, eta urtero antolatzen diren zenbait ekintza finkatu dira, aldizka burutzen diren lanketa edo ekimenez gain. Udal sailekin eginiko elkarrizketetan aipatu denez, orain arte burututako berdintasun ekimenak herrira begira izan dute inpaktua, baina ez hainbeste udal barnera begira. **Bigarren berdintasun planarekin, berdintasun ikuspegia udal-funtzionamenduan txertatzeko ahalegin berezia egin behar dela uste da.**

BERDINTASUN POLITIKEN GARAPENA ARLOZ-ARLO**ZERBITZU OROKORRAK**

LORPENAK	ERRONKAK
Formazio saioak burutu dira langileekin, eta sentsibilizazio maila handituz doa.	Politikariekin ez da formazio saiorik burutu. Formazio eta sentsibilizazio mailan sakontzen jarraitu beharra
Diru laguntzetan berdintasun klausulak txertatzen dira	Diru laguntzetako berdintasun irizpideen zehaztasunean sakondu beharra Kontratazioetan berdintasun klausulak txertatu beharra, berdintasun arloarekin elkarlanean
Erraztasunak udal mailan kontziliazio neurriak hartzerako orduan: malgutasuna	Umeen zaintzarako eskatzen diren baimenak nahiko parekideak direla uste da, ez ordea nagusien zaintzari dagozkienak
Indarkeria matxisten gaineko protokoloa eginda dago	Protokoloa martxan jarri beharra ORDENANTZA bat tresna baliagarria izango litzatekeela uste da.

KULTURA, MUSEOA ETA INGURUMENA

LORPENAK	ERRONKAK
Museoa	
Ekintza bereziak sustatu ohi dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenera begira; ZTB jardunaldietako ekintzak (tailerrak)...	Museoa baliabide interesgarria izan daitekeela uste da berdintasunera bideratutako ekintzak txertatzeko, ikerketak sustatzeko, eta abar.
Datuak sexuaren arabera jasotzeko saiakera egiten da, nahiz eta ez den beti lortzen. Baliabideak falta dira horretarako	Sarean funtzionatzeko beharra ikusten da berdintasun arloko gaiekin.
Hizkuntzaren eta irudien erabilera zaintzen saiatzen dira.	Museoko kudeaketa programaren elaborazio eta ebaluazioan berdintasun ikuspegia txertatu beharra
KULTURA	
Ekintzen eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiten da batzuetan, era informalean	Ekintzen eraginaren gaineko aurretiazko ebaluazioak sistematizatu beharra
Sentsibilizazio kanpainak burutzen dira berdintasun batzordearekin elkarlanean (azaroak 25, martxoak 8, jailetako eraso sexisten aurkako kanpaina...)	Balioen aldaketara bideratutako ekintzak sendotu beharra ikusten da.
Arloko arduradunen sentsibilizazio maila areagotu egin da.	Erabaki guneak oso maskulinoak dira, eta ekintzen hartzaile nagusiak emakumeak. Kontziliazio neurriak aplikatu beharra jai batzorde eta kultura batzordeetan
Hizkuntzaren erabilera zaintzeko ahalegina egiten da. (kulturatik asko ekoizten da eta normalean euskara zerbitzuari laguntza eskatzen zaio)	Kontratazio eremuan berdintasun klausulak txertatzea

KIROLA

LORPENAK	ERRONKAK
Eskola kirolean lanketa ezberdinak egiten dira generoaren araberrako kirol segregazioa gaitzitzeko	Arloko diagnostiko periodikoak egin beharra ikusten da, berdintasun ikuspegitik, dagoen errealitatearen gaineko argazki orokor bat izateko, eta baliabideen araberrako erronkak finkatu ahal izateko.
Ekintza puntualetan zaintza zerbitzua eskaini izan da (ez du arakatarik izan, eta egun ez da eskaintzen)	Pleguetan sexu jazarpen protokoloak eta berdintasun irizpideak txertatu beharra
Kirol lehiaketetan gero eta emakume gehiago dago, bai eta kirol federatua ere.	Kirol-praktikak segregatua izaten jarraitzen du. Egoera gaitzitzeko neurriak hartu beharra.
	Labegarietan segurtasun neurriak jartzea
	Baliabideen antolaketa parekideagoa egiteko bideak aztertzea

ENPLEGUA

LORPENAK	ERRONKAK
Orientazio zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua nahiko parekatua da	Formazio ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzea
	Enpresekin eta merkatariekin sentsibilizazio kanpainak abiatzea
	Bergarako udalak burutzen dituen aldi baterako kontratazioetan berdintasun ikuspegia txertatzearen beharra kontuan izatea (pertsonaleko arduradunekin batera).

HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA PARTE HARTZEA

LORPENAK	ERRONKAK
Gazteria arloko arduradunak eta ludoteka, udalekuek eta gaztelekuko begiraleek formazioa jaso dute	Begiraleen joan-etorria handia da eta inkorporazio berriek ez dute formazioerik jasotzen. Aldizkako formazioa eskaini beharra ikusten da, bai eta harrerarako dokumentu bat eratzeko beharra ere.
Foru alduniaren hezkidetzeta plana gazteriko egitasmoetara egokitu da	Material erosketarako kriterioak finkatu beharra
Beldur barik programan parte hartzen da, tratu onen inguruko tailerrak ematen dira, eta Martxoak 8 edo Azaroak 25eko ekimenak garatzen dira.	Nesken parte hartzea sustatzea erabaki-guneetan
Sentsibilizazio maila areagotu da	Irisgarritasuna hobetu beharra
Gizarte mailako aldaketak hautematen dira: tanborradan adibidez.	Koordinazio maila hobetzea, eta berdintasun zerbitzuari egonkortasuna eman beharra
Jostailuen gida ez sexista egin da	Parte hartze prozesuak gero eta gehiago egiten dira, eta horietan emakumeen, emakume etorkinen, ezgaitasunak dituzten emakumeen eta abarren parte hartzea bermatzeko neurriak hartu beharra ikusten da.

EUSKARA

LORPENAK	ERRONKAK
Sentsibilizazio maila areagotu da.	Formazioan sakontzea
Hizkuntza eta irudien erabilera zaintzen da, udal mailako dokumentuetan, bai eta elkarteetan testu eta irudiak zuzentzerakoan ere.	Berdintasun arloarekin koordinazioa sendotzea. Zehar lerrokoak sarean antolatzeke beharra.
Epaimahai parekatuak eratzeko ahalegina egiten da. Eta argazki lehiaketan berdintasun ikuspegia kontuan hartzen da	Harrera protokoloan berdintasun irizpideak ere txertatzea
	Kontratazio batzuetan berdintasun irizpideak txertatzen dira, jarraipen mekanismoak falta dira, ordea.
	Ebaluazio mekanismoak sistematizatzeko beharra

GIZARTE ZERBITZUAK

LORPENAK	ERRONKAK
Formazioa jaso da	langile berri bat lanean hasten denean nola trasladatu oinarriko formazio horretan jasotakoa, batez ere hizkuntza ez sexistaren erabileraren ingurukoa. Udalak duen harrera protokoloan genero ikuspegia txertatuz adibidez.
Kontratazioetan eta diru laguntzetan berdintasun ikuspegia txertatzeko pausuak eman dira, klausula orokorrekin	Kontratazioetan eta diru laguntzetan berdintasun klausulak zehaztasun gehiagoz lantzea
Osasun Sarea izeneko egitasmoan genero ikuspegia kontuan hartu nahi da.	Berdintasun plana aurrera eramateko figura baten beharra
Prebentzio arlotik eskeintzen diren ikastaroetan haurtzaindegi zerbitzua eskeintzen da.	Jabekuntza eskola baten beharra
eskoletan tailerrak ematen dira eta udaletik sexu aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen da.	Etkez-etxeko zerbitzuaren errebisioa eta zerbitzu horren diagnostiko sakon baten beharra ikusten da.
Emakumeen aurkako indakeriari aurre egiteko udal protokoloa 2011. urtean onartu egin zen	Protokoloaren erakundeen arteko mahaia berriro martxan jartzea, bertan parte hartzen duten eragileei formazioa eskainiz.
	Bazterketa egoeran dauden gizonekin lana egitea.
	Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzen diren erabiltzaileen inguruko informazioa sexuaren eta bestelako irizpideen arabera jasotzea, ahalik eta informazio zehatzena eskuratuz (familia izaera, lan egoera...)

HIRIGINTZA

LORPENAK	ERRONKAK
Kontratazioetan berdintasun ikuspegia txertatzeko pausuak eman dira	Genero ikuspegia eta Kontziliazio neurriak kontuan hartzea hiriaren diseinuan
	Kontratazioetan berdintasun klausulak txertatzea, Sistematizazioa
Hiri debekatuaren mapa burutu da	Hiri debekatuaren maparen jarraipena egitea, gizarte zerbitzuekin koordinazioa indartuz

BERDINTASUNA

LORPENAK	ERRONKAK
Hizkuntza eta irudien inguruko formazio saio bat burutu da teknikariek	Protokoloa martxan jartzea
Martxoak 8 eta azaroak 25eko kanpainak kontsolidatu dira	Berdintasun klausulak diru-laguntza eta kontratazioetan
Jaietan erasoen gaineko ekintza puntualak egiten dira, elkarte feministarekin elkarlanean	Berdintasun arloa beharrezko diren baliabideekin hornitzea. Berdintasun teknikariaren beharra
Sexu-genero aholkularitza zerbitzua 2014 urtetik. Aholkularitza indibidual eta kolektiboa eskaintzen da, eta martxanterekin, institutuarekin... lan egiten da	Hezkidetzeta foro bat sortzea (2. urterako, parte-hartze eremuen sorrera progresiboa izan dadin).
Ikastetxeko saioak. Oso era positiboan baloratzen dira.	Berdinsarean parte hartzea
	Politikarien eta teknikarien formazioa.
	Osakidetzeta eta sexu aholkularitza zerbitzuaren arteko elkarlana bilatzea
	Auzoetako errealitatera egokitutako eskuhartzeak egitea
	Jabekuntza tailerrak. Jabekuntza eskola baten beharra.
	Berdintasun kontseilua martxan jartzea

BERDINTASUN POLITIKAK HERRIKO ERAGILEEN IKUSPEGITIK

Herriko eragile ezberdinen ikuspuntua jaso nahian, elkarte feministako kideekin lan saio bat egin da, eta elkarte kultural eta kirol elkarteen iritzia jasotzeko eta ikastetxeen iritzia jasotzeko galdetegi bat erabili da. Lan prozesu horietatik, honako ondorioak atera dira:

IKASTETXEEN IKUSPUNTUA

Ikastetxeei helarazitako galdetegiaren bidez ikusi da ikastetxe bakoitzak oso maila ezberdinean garatu dituztela orain arte berdintasun programak. II. berdintasun planari dagokionez, helburu bezala identifikatu dituzte berdintasuna modu integral batean gauzatzea, eta berdintasunaren oinarrizko ezagutza, indarkeriaren prebentzioa eta tratu onak sustatzea.

Identifikatutako beharrak:

- ⇒ Sentsibilizazioa lantzea gure gizartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzea
- ⇒ Sexu, genero eta sexualitate aniztasunaren gaineko lanketak egitea
- ⇒ Behar horiek asetzeko, tailerrak antolatzea proposatzen da, ikastetxeak bitartekari eta erraztaile izanik, eta beharren arabera koordinazio bideak ezarriz.

TALDE KULTURALEN ETA KIROL TALDEEN IKUSPUNTUA

Kultura eta kirol arloko eragileei helarazitako galdetegiaren bidez jasotako datuek azaldutakoaren arabera, kirol eta kultura eragileen artean ere alde nabarmena dago berdintasun arloan batzuek eta besteek izandako ibilbidean. Zortzi elkartetik bik bakarrik izan dute harremana berdintasun arloarekin azken urteetan, eta zortzirek onartu dute I. berdintasun planarekin ez dutela inolako harremanik izan orain arte.

Identifikatutako beharrak:

- ⇒ Talde eta jatorri ezberdinetako emakumeen parte-hartzea eta baliabideekiko sarbidea hobetzea
- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzea
- ⇒ Sentsibilizazioa lantzea gure gizartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko
- ⇒ Erabakiak hartzen diren lekuetan (batzordeak, zuzendaritzak...) emakumeen presentzia handitzea.
- ⇒ Mendekotasuna duten pertsonen arretarako baliabideak eta programak hobetzea (txikiak, nagusiak, ezintasuna duten pertsonak eta abar)

Identifikatutako ekintzak:

- ⇒ Emakumeen kontrako indarkeri kasuetan jarraitu beharreko protokoloaren berri ematea eta zeintzuk diren prozedura hau aurrera eramaten denean jarraitu beharreko pausuak, udalak zein laguntza eskaintzen duen...
- ⇒ Ekintza mixtoak adin guztietako emakume eta gizonentzako
- ⇒ Neska kirolarien lana kaleratzea eta bultzatzea
- ⇒ Emakumeak kirol elkarten gidaritzan murgiltzera bideratutako ekintzak
- ⇒ Kirolean, taldekako ekimenetan eta lasterketetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenak
- ⇒ Informazio eta sentsibilizazio kanpainak kultur agendaren bitartez

Ekintza hauek aurrera eramateko, elkarten inplikazioa, parte hartzea eta kolaborazioa ezinbestekotzat dute gehienek.

ELKARTE FEMINISTAKO KIDEEN IKUSPUNTUA

2015ean sortu zen Martxanterak taldea, Emakumeen mundo martxaren inguruan. Gaur egun adin ezberdinetako emakumez osatuta dago, talde finko bat dago eta beste bat emakumeen mundo martxakoa. Talde bezala ez zeuden eratuta aurreko prozesu guztia eman zenean. Pertsonalki ere ez dute aurreko planean inplikaziorik izan, edo ez dute aurreko planaren gaineko informazio gehiegi izan. Batzuek planaren existentziaz zekiten, beste batzuek ez.

Orokorrean ariketa egiterako orduan azpimarratu da, konstantzia dagoela egin diren gauzak herriak ez dituela ikusi; hau da, ez direla egindako ekintzak sozializatu. Bi lan ildo nagusi azpimarratzen dira: **Formazio eta sentsibilizazio**

maila indartzea, eta berdintasun arloa beharrezko **baliabide** pertsonal eta ekonomikoz hornitzea.

LORPENAK	ERRONKAK
Hizkuntza eta irudien erabilera gehiago zaintzen da	Udal mailan formazio eta sentsibilizazio maila indartu beharra, berdintasun politikak arlo bakoitzeko jardunean txertatzeko
Irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartzen ari dira	Kultura eta kirol arloan emakume erreferenteak bistaratzeko beharra
Gaia kalean dago. Herritarren sentsibilizazioa areagotuz doa, naiz eta oraindik ere eztabaidak oso azalekoak diren.	Kirol arloan desoreka handia dago: baliabide aldetik, lehentasunak ezartzerako orduan, berdintasun ikuspegia jardunean txertatzerako orduan...
MARTXANTERAK taldea eratu zenetik zenbait ekimen burutu dituzte haien kontura: kale izendegiaren errebisioa, gunen ilunen gaineko lanketa,	Gazte lekuan berdintasun ikuspegia txertatzea
Eskolatik antolatutako sentsibilizazio saioak oso ondo baloratzen dira	Hezkidetzaren plan bat, umetatik hasten dena
	Gizarte zerbitzuetatik eskaintzen diren baliabideak ezagutaraztea
	Ahalduzko ikastaroak antolatzeko beharra
	Berdintasun arlotik Azaroak 25 eta martxoak 8 bezalako kanpainak indartzea
	Berdintasun arloa baliabidez hornitzea: baliabide pertsonal eta ekonomikoak, aurrean azaldutakoa gauzatu ahal izateko

3-BERGARAKO II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Bergarako II. Berdintasun plana, Emakunderen VI. Berdintasun planean oinarriturik, zazpi lan-ildoren baitan egituratu da.

Egitura aldaketa honen helburua, udalaren ekintzen globaltasuna islatu, eta estrategia eta helburu komunak ezartzea izan da. Zeharlerrokotasuna erdigunean ezarriz, Bergarako udal-politika bateratu bat planteatzen da berdintasun plan honetan.

Lan ildoak:



Aipatutako lan ildoen baitan, zenbait helburu planteatu dira, eta ekintza sorta bat helburu horiek aurrera eraman ahal izateko. Honakoak dira lan-ildo bakoitzaren barruan ezarri diren helburuak eta horiek gauzatzeko planteatu diren ekintzen proposamena:

GOBERNANTZA

1. HELBURUA: Bergarako II. berdintasun plana martxan jarri, eta jarraipen mekanismoak aktibatzea
2. HELBURUA: Formazioa eta sentsibilizazioa
3. HELBURUA: Berdintasun ikuspegia eguneroko lan-moldeetan txertatzea
4. HELBURUA: Berdintasun printzipioa udaleko araudian txertatzea

EMAKUMEEN PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA EKONOMIKOA

5. HELBURUA: Udaleko parte-hartze egituretan parekidetasuna lortzeko neurriak ezartzea
6. HELBURUA: Udalak eskaintzen dituen lan baldintzetan berdintasun irizpidea txertatzea
7. HELBURUA: Bergarako enpresa eta merkatariekin sentsibilizazio kanpainak burutzea

AUTONOMIA ETA NORBERAREN BOTEREA

8. HELBURUA: Emakumeen ahaldunderako ekimenak bultzatzea
9. HELBURUA: Emakumeen autonomia garatzeko ekimenak bultzatzea
10. HELBURUA: Herritarren sentsibilizazioa areagotzea

JAIK ETA KULTURA EZ SEXISTA

11. HELBURUA: Berdintasun ikuspegia txertatzea ekintzen antolaketan eta ebaluazioan
12. HELBURUA: Herriko eskaintza kulturean berdintasun ikuspegia txertatzea
13. HELBURUA: Herriko emakume eta gizonen behar eta interesei erantzungo dieten jaien antolaketa

OSASUNA ETA KIROLA

14. HELBURUA: Berdintasun ikuspegia kirol arloan txertatzeko oinarria ezarri
15. HELBURUA: Kirol instalazioak herritarren beharretara egokitzea, kontuan hartuz sexua, adina, erantzukizun familiarrak...
16. HELBURUA: Kirol segregazioa eliminatzeko kanpainak burutzea
17. HELBURUA: Osakidetzarekin berdintasun arloan lankidetzatza sustatzea

ZAINTZA ERANTZUNKIDEA

18. HELBURUA: Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko baliabideak eskaintzea udalak antolatutako ekintzetan
19. HELBURUA: Hiriaren antolamendua diseinatzerakoan zaintza kontuan hartzea
20. HELBURUA: Herritarrekin sentsibilizazio kanpainak burutzea

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

21. HELBURUA: Informazioa herritarrei helaraztea
22. HELBURUA: Emakumeenganako edozein indarkeria motari aurre egiteko mekanismoak ezartzea
23. HELBURUA: Bergarako emakumeen segurtasuna indartzeko ekintzak martxan jartzea

Bergarako II. Berdintasun Plana

BERGARAKO GIZON ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNANTZA				
HELBURUA	1. Helburua: BERGARAKO II. BERDINTASUN PLANA MARTXAN JARRI ETA JARRAIPIEN MEKANISMOAK AKTIBATZEA				
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA/ADIERAZLEAK			
		2018	2019	2020	2021
Urtero arlo bakoitzak berdintasun planean oinarrituta burutuko dituen ekintzak biltzen dituen plan operatiboa eratzea, dagokion aurrekontuarekin	Arlo bakoitza Laguntzailea: Berdintasuna	-Urteko plan operatiboa jasotzen duen dokumentua -Berdintasun gaietara arlo bakoitzetik bideratutako aurrekontuaren zenbatekoa	-Urteko plan operatiboa jasotzen duen dokumentua -Berdintasun gaietara arlo bakoitzetik bideratutako aurrekontuaren zenbatekoa	-Urteko plan operatiboa jasotzen duen dokumentua -Berdintasun gaietara arlo bakoitzetik bideratutako aurrekontuaren zenbatekoa	-Urteko plan operatiboa jasotzen duen dokumentua -Berdintasun gaietara arlo bakoitzetik bideratutako aurrekontuaren zenbatekoa
		10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU
Berdintasun teknikariarekin batera, urtero aurrera eramango diren egitasmo nagusien generoaren araberako ebaluazio irizpideak zehaztu eta jarraipena eraman,	Arlo bakoitza Laguntzailea: Berdintasuna	Generoaren araberako ebaluazio irizpideak batzen dituen euskarria sortzea, berdintasun arloarekin lankidetzan	Arlo bakoitzeko urteko ekintzen ebaluazio txostena genero ikuspegitik	Arlo bakoitzeko urteko ekintzen ebaluazio txostena genero ikuspegitik	Arlo bakoitzeko urteko ekintzen ebaluazio txostena genero ikuspegitik
		10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU
Berdintasun teknikaria eta gainerako arloen arteko koordinazio mekanismoak finkatzea	Berdintasuna	Urtean arlo bakoitzarekin burututako koordinazio bileren zenbatekoa Berdintasun arloa eta gainerako arloen artean eratutako komunikazio bideak	Urtean arlo bakoitzarekin burututako koordinazio bileren zenbatekoa Berdintasun arloa eta gainerako arloen artean eratutako komunikazio bideak	Urtean arlo bakoitzarekin burututako koordinazio bileren zenbatekoa Berdintasun arloa eta gainerako arloen artean eratutako komunikazio bideak	Arlo bakoitzarekin burututako koordinazio bileren zenbatekoa Berdintasun arloa eta gainerako arloen artean eratutako komunikazio bideak
		100 ORDU	100 ORDU	100 ORDU	100 ORDU
Berdintasun planaren hedapena eta honen urteko emaitzen hedapena	Berdintasuna Laguntzaileak: Arlo guztiak	Berdintasun planaren hedapenerako erabilitako bitartekoak eta hauen irismen mailaren estimazioa	berdintasun planak urte honetan emandakoaren gaineko informazioa udalean eta herrian hedatzeko eginiko ekintzak	berdintasun planak urte honetan emandakoaren gaineko informazioa udalean eta herrian hedatzeko eginiko ekintzak	berdintasun planak urte honetan emandakoaren gaineko informazioa udalean eta herrian hedatzeko eginiko ekintzak
		10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU
Hezkuntza arloko mahaia eratu, berdintasun planaren arloko jarraipena burutzeko, berdintasun teknikariarekin koordinatuz.	Hezkuntza Laguntzailea: berdintasuna	---	Hezkuntza arloko mahaia eratu izana	Hezkuntza mahaia izandako bilera kopurua Parte hartzea	Hezkuntza mahaia izandako bilera kopurua Parte hartzea
			10 ORDU	10 ORDU	10 ORDU
			0€	0€	0€

LAN-ILDOA		GOBERNANTZA			
HELBURUA		2.Helburua: UDALEKO BERDINTASUN ARLOA INDARTZEA			
EKINTZAK	ARDURADUNA K	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA/ADIERAZLEAK			
		2018	2019	2020	2021
Berdintasun arloa beharrezko baliabide tekniko eta pertsonalaz hornitzea.	Zerbitzu orokorrak Berdintasuna	-Berdintasun arloari esleitutako aurrekontuaren zenbateko osoa, eta portzentuala Berdintasun arloa kudeatzera bideratutako baliabide pertsonalak, haien ordu dedikazioa, formazioa eta eginkizunen arabera	-Berdintasun arloari esleitutako aurrekontuaren zenbateko osoa, eta portzentuala Berdintasun arloa kudeatzera bideratutako baliabide pertsonalak, haien ordu dedikazioa, formazioa eta eginkizunen arabera	-Berdintasun arloari esleitutako aurrekontuaren zenbateko osoa, eta portzentuala Berdintasun arloa kudeatzera bideratutako baliabide pertsonalak, haien ordu dedikazioa, formazioa eta eginkizunen arabera	-Berdintasun arloari esleitutako aurrekontuaren zenbateko osoa, eta portzentuala Berdintasun arloa kudeatzera bideratutako baliabide pertsonalak, haien ordu dedikazioa, formazioa eta eginkizunen arabera
		€ 20 ORDU	€ 15 ORDU	€ 10 ORDU	€ 10 ORDU
Berdintasun kontseilua martxan jarri eta kontsolidatzea	berdintasuna	Berdintasun kontseilua martxan jarri izana	Urtean zehar burututako bilera kopurua, bileretako parte hartze maila	Urtean zehar burututako bilera kopurua, bileretako parte hartze maila	Urtean zehar burututako bilera kopurua, bileretako parte hartze maila
		0€ 20 ORDU	0€ 20 ORDU	0€ 20 ORDU	0€ 20 ORDU

LAN-ILDOA		GOBERNANTZA			
HELBURUA		3.Helburua: FORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA/ADIERAZLEAK			
		2018	2019	2020	2021
Udaleko arduradun politiko eta teknikoentzako prestakuntza zehatza antolatzea, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko beren jardunetan. Urteko 2-3 formazio ekintza burutzea udal mailan (8-12 ordu), identifikatutako beharren arabera.	BERDINTASUNA Laguntzaileak: arloan guztiak	Urteko formazio planaren diseinu eta ebaluazioa, burututako ekintzak, iraupena eta parte hartzaile kopurua	Urteko formazio planaren diseinu eta ebaluazioa, burututako ekintzak, iraupena eta parte hartzaile kopurua	Urteko formazio planaren diseinu eta ebaluazioa, burututako ekintzak, iraupena eta parte hartzaile kopurua	Urteko formazio planaren diseinu eta ebaluazioa, burututako ekintzak, iraupena eta parte hartzaile kopurua
		1500€ 30 ORDU	600€ 20 ORDU	600€ 20 ORDU	600€ 20 ORDU
